

/ Nabarmentzekoak

- > Neguko Ostatu-zerbitzua erabilgarri (2. or.)
- > "Vulcano", iraganeko trauma batetik salbatzen saiatzen den familia (3. or.)
- > Gabonetarako Kirol-campusak (4. or.)



Kontzertua. Abenduak 6, larunbata, 21:00etan, Muxikebarrin, "Bizardunak" taldearen agur kontzertua. 18€.

Haur musika-ikuskizuna. Abenduak 7, igandea, 18:00etan, Muxikebarrin, "Txiki Rock, euskal rockari erreposoa", Vitamin Produccioneseekin. 6€.

A-
GENDA

Jarduera ugari Abenduaren 3a dela eta

"Euskaraz nahi baduzu, nahi dugu" izango da aurtengo Euskararen Nazioarteko Egunaren leloa

Euskaraz nahi baduzu, nahi dugu leloarekin animatuko ditu aurtengo Udalak, abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dela eta, berak eta udalerriko elkarteek antolatutako ekintza guztietan herritarrak parte hartzea. Bestalde, Adierazpen Instituzional baten onarpena izango du mahai gainean Bozeramaleen Batzordeak. Amaia Aguirre alkateak adierazi duenez, "gaur egun euskararen erabilerarako eta transmisiorako bideak jorratu behar ditugu denon artean, aisialditik lan munduraino, norbanakotik erakundeetaraino. Herritarrak gonbidatzen ditugu udal administrazioan ere euskaraz egitera, lehen hitza euskaraz esatera".

Jarduerak

Aurreko urteotan bezala, Udalak egun hauetan izango diren mota guztietako jardueren (kulturalak, euskara sustatzeko, kirol alorrekoak, musikakoak...) egutegia prestatu du hurrengo asteotarako eta kartel batean ateratako QR kode baten bidez ezagut daiteke.

Udalak eta herriko elkarteek antolatutako jarduera horien artean, ostiralean, azaroak 28, 19:00etan, *Ombuaren itzala* izenburuko

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

EUSKARAZ NAHI BADUZU, NAHI DUGU

EGIN BAT GETXOKO EKITALDIEKIN



proiektzioa izango da Bentan, Patxi Bisquert zuzendariaren partaidetzarekin. Azaroaren 30ean dantzarien kalejira berezia izango da Algortan zehar, 12:00etatik aurrera, Itxartu taldearen eskutik, eta *Olaia*ren lorategia haur antzerkia Muxikebarrin, 18:00etan.

EGIZU euskara elkarteak antolatutako ekitaldien artean, Kluba eta Txokoa literatura saioak izango dira, Durangon abenduaren 7an izango den Mintzodromora joateko txangoarekin eta SENDI programaren barruko tailerrekin batera. ALBE gala eta Balendin Enbeita bertso-paper lehiaketaren sari banaketa abenduaren 14an izango da eta 24 orduz igerian euskararen aldeko ekimena, Fadura kiroldegian, abenduaren 20an, 12:00etatik hilaren 21eko 12:00etara. Egun horietan Musikebarrik ere euskarazko programazio anitza eskainiko du.

Trikikantuak

Urtero bezala, abenduaren 3an, Triki kantutegi gosaria eta trikimerienda izango dira, aurtengo TikiTokin. Hitzorduak 09:00etatik 12:00etara, eta 17:30etik 19:00etara izango dira, animatzen diren euskara ikasle eta euskaltzaleen partaidetzarekin.

Lanei esker, Lehen Federazioko partidak hartu ahal izango dira, eta kategoria horretan lehiatzen da Arenas Club

Getxo Kirolak-ek 931.000 euro inbertituko ditu Fadurako belar naturaleko zelaia egokitzeko

Getxo Kirolak-ek lanak hasi ditu Fadurako belar naturaleko futbol-zelaia egokitzeko. Erreforma 931.000 euroko inbertsioa ekarriko du, eta horren bitartez zelaia Lehenengo Federazio-mailako partidak jokatzeke ezartzen diren baldintzak bete ahal izango ditu. Denboraldi honetan, Arenas Kluba maila horretan lehiatzen ari da.

Lanak urtarrilaren erdialdera arte luzatuko dira eta honako hauek hartuko dituzte barne: perimetroko hesiak konpontzea, erai-kin nagusiko aldagelak egokitzea, zelaia-aren hondoa nahiz ibaitik hurbilen dagoen eremuan dauden harmailak saneatzea eta konpontzea, eta dauden tribunak konpontzea. Halaber, zelaiko sarbideak berrikiko



dira eta komunikazio- eta segurtasun-sistema hobeak instalatuko dira (megafonia eta bideozaintza).

Fadurako ibai-pasealekua egokitzea

Lan horiek egin ahal izateko Getxo Kirolak-ek Uraren Euskal Agentziaren (URA) oniritzia jaso ondoren, udaleko kirol erakundeak aprobetxatuko du futbol-zelaiaren eta Gobel ibaiaren arteko ibai-pasealekua egokitzeko. Fadurako kiroldegia zeharkatzen duen pasealeku horrek aukera emango du María Ibarra plazaren inguruan dagoen kiroldegirako sarbidea irekitzeko. Aurreikusten da Fadurako sarbide berri hori eta kirol-instalazioen aparkalekuraino iritsiko den pasealekua otsailean egongo direla erabilgarri.



AZAROAK 27 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Boris Lojkineren "Sirát, trance en el desierto" (gaztelera). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

AZAROAK 28 OSTIRALA

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Icíar Bolláin "Soy Nevenka". 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Zinema. 19:00etan, Bentan (Angel etorbidea, 49), "Ombusaren itzala" filmaren emanaldia, Patxi Bisquert zuzendariaren partaidetza-rekin.

AZAROAK 29 LARUNBATA

Kontzertu solidarioa. Personalde GKEaren alde. 19:30ean, Romoko San José parrokiaren Ondarreta abesbatzaren emanaldia. **Build the future GKEaren alde.** 19:30ean, San Martín de Tours parrokiaren Kimetz eta Zozoak abesbatzak.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Vulcano" (gaztelera), Centro Dramático Nacional konpainiarekin. 15€.

AZAROAK 30 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Anzu, gato fantasma" (gaztelera). 2,50 euro.

Haur ikuskizuna. 18:00etan, Muxikebarrin, "Olaiaren lorategia" (euskaraz), Pájaros Pintados & Teatro del Cuervo konpainiarekin. 6€.

ABENDUAK 1 ASTELEHENA

Bisita gidatua. Bosteko 2025 erakusketa. Romo Kultur Etxean, 18:30ean (gaztelaniaz).

ABENDUAK 2 ASTEARTEA

Erakusketa. Bosteko 2025. Romo Kultur Etxean, "Ia zu zinen" arte garaikearen erakusketa, Argiñe Ceballos, Hodei Herreros eta Sofía

Mendiondoren instalazio eskultorikoekin, argazkiekin, testuekin eta ikus-entzunezko piezekin. Hilaren 21era arte. Bisita gidatuak: 11n, 19:15ean (euskaraz) eta 19an, 19:00etan (bitartekaritza saioa).

ABENDUAK 3 ASTEAZKENA

Dokumental zikloa. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Esto no es Hollywood. La historia inacabada de los hermanos Ibarretxe" (gaztelaniaz), Jone Ibarretxe eta Nere Falaganena. Sarre- gongonbidapenarekin: Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Adarbakarra" (euskaraz), Maite Aizpurua eta Garazi Navasekin. 8€.

ABENDUAK 4 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00h, Muxikebarrin, Larraitz Zuazoren "Itoiz. Udako sesioak" (euskaraz, gaztelera azpitu-luekin). Adin guztiak. 3,50 euro.

ABENDUAK 5 OSTIRALA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Ilogailua" (euskaraz), Fábrica de Brujas Sormen Kolektiboarekin. 8€.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Mike Leighen "Mi única familia" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

ABENDUAK 6 LARUNBATA

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, "Bizardunak" taldearen agur kontzertua. 18€.

Kontzertua. 20:00etan, Bariko San Nikolas parrokiaren, Bergarako Parrokiako Abesbatza eta Aitor Olea (organoa). Antolatzailea: Merklin organoko Lagunen Elkartea.

ABENDUAK 7 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Deep sea, viaje a las profundidades" (gaztelera). 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Guardiana de dragones" (gaztelaniaz). 2,50€.

Haur musika-ikuskizuna. 18:00etan, Muxikebarrin, "Txiki Rock, euskal rockari errepassoa", Vitamin Produccionesekin. 6€.

Neguko Ostatu-zerbitzua erabilgarri

Datorren martxoaren 31ra arte erabilgarri egongo da neguan, oso eguraldi txarra egiten duenean, lo egiteko lekurik ez duten pertsonen emateko Neguko Ostatu-zerbitzua.

Baldintza meteorologiko txarrak dira 5 graduko edo hortik beherako tenperatura, eta Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziak ezartzen dituen abisu horria, alerta laranja eta alarma gorria euriagatik, eta alerta laranja eta alarma gorria haizeagatik (lehen aldiz). Aipatutako egoera horietan, jarraian hiru gauetan egonaldia bermatuko da, eta hiru gauetan luzatu ahal izango da, egoerak irauten badu. Pertsonentzako sar-tzeko ordutegia 21:00etatik 22:00etara izango da eta irteera 09:00etan. Bertan dauden bitartean, ohea eta edari



bero bat eskainiko zaie bertaraten direnei.

Getxo-Urbe Kosta eskualdean etxerik gabeko pertsonentzako aurreikusitako Zerbitzua Berangon eskainiko da gizonezkoentzat, eta Argitzean (Algorta) emakumezkoentzat, toki libreak izanez gero eta ez egoteko-tan ostalaritzako establezi-menduetara joko dute.

Hitzarmena Gurutze Gorriarekin

Udalak Gurutze Gorriaren aldeko 130.000 euroko laguntza ematea arautuko duen hitzarmena onartu du, udalerriko kolektibo kalte- berei laguntzeko programa bultzatze aldera.

Programa hiru bloketan egituratzen da, artatutako biztanleriaren arabera. Lehenik eta behin, oso egoera ahulean dauden eta oinarrizko premiak asetu ezin dituzten familiak eta kolektiboak artatzen ditu elkarteak. Arreta hori hainbat proiektu aurre-

ra eramanez gauzatzen da. Bigarrenik, etxerik gabeko pertsonen arreta eskaintzen die, Gizarte Zerbitzuek bideratutako kale-egoeran dauden pertsonen Gauda Pasatze-ko Kit-a (motxila, lo-zakua, esterilla, babes-arropa...) emanaz, batez ere negu garaian. Hirugarrenik, adinekoei laguntzen die, zahartze osasuntsu eta aktiboan laguntzeko, bai eta adinekoen kolektiboaren bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko ere, haien autonomia eta independentzia indartuz.



Bisita Ana María Cearra Quintanari bere 100 urtebetetzeagatik

Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak Ana María Cearra Quintana auzokidea bisitatu zuen asteartean bere Areetako etxebizitzan, 100 urte bete zituela eta. Bilbon jaioa, duela 40 urtez geroztik Getxoko auzokidea da. Emakumea sei seme-alabaren ama da eta zortzi biloba eta hamar birbiloba ere ditu. Aixerrotaoren orogarria eta lore sorta bat jaso zituen Udalaren partetik.

Adierazpen Instituzionala A25a dela eta

Udaleko Bozeramaleen Batzordeak Adierazpen In-stituzional bat onartu zuen aurreko astelehenean, aho batez, Elkarrekin Podemos taldea bertan izan ez zela izan, azaroaren 25ean ospatutako Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunagatik.

Bozeramaleen Batzordeak, besteak beste, hurrengoek adostu zituen: hurbiltasun-sare lokalak indartzen jarraitzea pertsona guztiak eta, bereziki, emakume eta neskarik zaurgarrienak konektatzeko; sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak garatzen jarraitzea, eta aldi berean, indarkeria matxistako kasuen aurrean herritarren mobilizazioa sustatzen jarraitzea. Adierazpen osoa: <https://labur.eus/gl8ifjxb>

Gambiari buruzko solasaldia

Abenduaren 2an, asteartean, *Creciendo en Gambia* izenburuko solasaldia izango da Algortako Kultur Aretan (Villamonten), Sunu Buga Buga GGKEak antolatuta.

Verónica Hormaechea GKEa aurrera eramaten ari den hezkuntza eta garapen komunitarioko proiektuaren sustatzaileak eskainiko du solasaldia. Jarduera zabalik egongo da interesa dutenentzat.

CODIGO_OrlentA programarako izen-emateak

Moviéndote elkarte getxotarrak CODIGO_OrlentA doako programa jarri du abian, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarteratze eta Berritasun Sailak diruz lagunduta, eta 2026ko urtarriletik apirilera bitartean hamar pertsonari emango die prestakuntza Adimen Artifizial Konputazionalan.

Ibilbideak ikaskuntzarako, garapen pertsonalerako eta lan-kidetza-proiektuen eraikuntzarako espazio praktikoak konbinatzen ditu. Izen emateak: abenduaren 15era arte. Informazio gehiago: asociacionmoviendote@gmail.com

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. **Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.** Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



“Vulcano”, iraganeko trauma batetik salbatzen saiatzen den familia

Larunbat honetan, azaroaren 29an, Centro Dramatiko Nacionalak *Vulcano* lana antzeztuko du Muxikebarrin. Bertan, iragan trauma batetik salbatzen saiatzen den familia baten istorioa kontatzen da, ondorio tragikoak dituen sute bat. Victoria Szpunbergen testuarekin eta Andrea Jimenezen zuzendaritzapean, Pilar Bergés, Iván López-Oreta, Albert Ribalta, Eneko Sagardoy eta Macarena Sanz dira protagonistak.

Erreportari eta kamerari baten etorrerak, eta gertatu zena berreraikitze ahaleginak, kontakizun ezagunak ustekabeko dimentsioak hartzea eragiten du, egiaren kontzeptua aldatuz eta gertaeren ustezko bertsio original bat zalantzan jarriz. Besteen minarekiko benetako interesaren eta morboaren arteko muga non dagoen aztertzen da, edo zer gertatzen den biktimen eta errudunen arteko muga argi ez dagoenean. 20:00etan hasiko da. 15 euro.



“Adarbakarra”, antzerki musikala Maite Aizpurua eta Garazi Navasekin

Maite Aizpurua eta Garazi Navas sortzaileak *Adarbakarra* lanarekin iritsiko dira Muxikebarrira, performance poetikoaren eta kontzertuaren arteko bidean dagoen euskarazko antzerki musikalaren proposamenarekin. Muntaiak honekin, luma euskalduntasunari jarri nahi dion olatuarekin bat egiten dute, “eta zergatik ez, guda-riaren irudiarekin”, diote.

Abenduaren 3an, asteazkena, 20:00etan, eszenatokira igoko

dira, salbazioa, justizia, herria edo jatorria bezalako topikoak ikuspegi kuir-feministatik nola zikindu, nahastu eta berreraiki dezakegun aztertzen duen lan hau erakusteko. Eta bide batez, kalteak, mugak eta ospakizunak fantasiaz eta gordintasunez taularatzea. Umorea, poesia eta diziplina anitzeko esperimentazioa uztartzen dituzte.

Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 8 eurokoa da.

“Olaiaren lorategia”, familia osoarentzako euskarazko antzerkia

Pájaros Pintados & Teatro del Cuervo konpainia Muxikebarrin arituko da igandean, azaroak 30, 18:00etan, eta familia osoarentzako euskarazko muntaiak eskainiko du. *Olaiaren lorategia* ausentzietan eta denboraren joanean zehar egiten den bidaia da, agurraren bidez eta haurtzaroko maskotarekin, aitona-amonekin, gurasoekin eta gure sustraiekin berriz elkartzeko. Istorioa udaberriko lehen egunean hasten da, protagonista, Olaia, lorategira itzultzen denean jaiotzen ikustera eta neguak utzitako hondakinak garbitzera. Sarrera: 6 euro.



Bosteko 2025 Romo Kultur Etxean

Abenduaren 2tik 21era, Bosteko 2025 arte garaikidearen erakusketa ibiltaria izango da Romo Kultur Etxean. *Ia zu zinen*, identitateari eta denboran eta espazioan zehar duen eraldaketari buruzko ibilbide introspektiboa proposatzen duen proiektua da. Argiñe Ceballos, Hodei Herreros eta Sofía Mendiandoren instalazio eskultorikoak, argazkiak, testuak eta ikus-entzunezko piezak ikusi ahal izango dira. Haien lanek identitatearen eraikuntza aztertzen dute, zati-katua, zaurgarria eta ezegonkorra den aldetik. Informazio gehiago: <https://labur.eus/hyft6xr3>

Bakarrizketa Antirrazista

Yo no soy racista pero manzanas traigo izenburuko bakarrizketa eskainiko du Aitor Vinagre aktoreak datorren abenduaren 19an, 19:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxo Antirrazista udal Zerbitzuak antolatuta, hainbat entitateen laguntzarekin. Gainera, horretan Getxo Antirrazista antzerki taldeak cameo bat egingo du, aipatutako aktorearekin egindako saioetan prestatutakoa.

Antzezlan horretan ikusleak telebista eztabaida batean izango dira. Pertsonaia gonbidatuak Beldurra, Gorrotoa eta Marmarra izango dira, eta gaurkotasunari eta herritarren kezkei buruzko iritziak partekatuko dituzte. Bertaratu nahi duten pertsonak doako izenematea egin beharko dute: <https://labur.eus/getxo-no-soy-racista-pero-loturan>.



“Arcoiris en la niebla”, depresioari buruzko eleberri ausarta

Igone Dublin Pelayok, Osasun lizentziadunak, *Arcoiris en la niebla* nobela ausart eta simbolikoa aurkeztu du Algortako Kultur Etxean, Villamonten. Bertan, lehen pertsonan, osasun mentaleko gaixotasun kroniko eta larri baten paziente gisa izandako esperientzia kontatzen du: depresio nagusi erresistentea. Testuan, eguneroko borroka, emozioak eta mundua ikusteko modua partekatzen ditu, prosa liriko baten eta istorioa aberasten duten alegiazko pertsonaien bidez. “Osasun mentala artatzen duen osasun sistema prekarioaren aurkako salaketa izatea nahi dut, baina baita gaixotasun horiek dituzten pertsonentzako itxaropen oihu bat ere”.

Ibarretxe anaiei buruzko dokumentala

Abenduaren 3an, asteazkena, proiektatuko da, Romo Kultur Etxean, *Esto no es Hollywood. La historia inacabada de los hermanos Ibarretxe*. Dokumental honek Javi, Josemi eta Esteban Ibarretxeren istorioa kontatzen du, Bilbolywood altxatzearekin amets egin zutenak. Ibarretxe & Co. ekoiztetxetik, edozein arau industrial gainditzen zuen askatasunarekin sortzearen aldeko apustua egin zuten. Josemiren alaba Jone Ibarretxeren begiradak gidatuta, Nere Falaganekin batera, unibertso hori ulertu nahi du, eta benetan haiekin amaitu zuen edo oraindik bizi izan zuten artean taupadak diren jakin. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta ondoren solasaldia izango da.

“Ramiro Pinilla” eta “Txiki Baskardo” sariak

Getxo Kulturak Ramiro Pinilla Eleberri Laburren Lehiaketaren bederatzigarren edizioa jarri du abian. Ekimen hori Pinillesca kolektiboarekin lankidetzan antolatu da, eta egile ospetsuaren memoria zaintzea eta literatur sorkuntza bultzatzea du helburu. Lehiaketa Espainian egoitza duten pertsoneri zuzenduta dago, nazionalitatea edozein dela ere, eta testuak aurkeztu ahal izango dituzte, gaztelaniaz zein euskaraz, 80 eta 120 orrialde arteko luzapenarekin. Parte hartzeko epea 2026ko otsailaren 20an amaituko da. Lehiaketak 6.300 euroko bi sari eta eleberriak argitaratzeko laguntza bat izango ditu.

Haurrentzako *Txiki Baskardo* Ipuin Lehiaketaren bederatzigarren edizioa ere jarri da abian, DBHko lehen mailako ikasle getxotarren artean literatur sorkuntza sustatzeko. Helduentzako lehiaketan bezala, bi lan sarituko dira, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Lehen sariak, bi kategorietan) 500 euroko kupoia izango da, tokiko saltokietan gastatzeko. Finalistek 50 euroko txekoa lortuko dute Getxoko establezimenduetan liburuak eros-teko.



Aixe Getxo sariak! 2025ek 14 artista, eragile eta kultur talde aitortu dituzte

Udalak bultzatutako AixeGetxo! sarien hamabosgarren edizioak udalerriko 14 artista, eragile eta kultur talderen lana eta talentua aitortu ditu. Muxikebarrin egindako gala batean, kategoria hauetan banatu ziren aitortpenak: Ikusizko eta ikus-entzunezko arteak: David Herranz (argazkigintza artistikoa, erretratu dokumentala, musika eta zinema); Arte plastikoak: Veva Linaza (sortzailea eta irakaslea. Paisaia-pintura); Arte eszenikoak: Itziar Fragua (aktorea eta antzerki-zuzendaria); Musika klasikoa eta garaikidea: Leyre Mesa (sopranoa. Artista polifazetiko eta pedagogoa); Egungo musika: El reno Renardo (20 urteko ibilbidea duen musika-talde garratz eta lotsagabea); Literatura: Aurora Vélez (idazlea. Lau poema-libururen egilea); Diseinua: Jaime

Hayde (ilustratzaile grafikoa eta diseinatzailea); Gastronomia: Karola etxea (Portu Zaharreko jatetxea); Kultura hezkuntzan eta balioetan: Xabier Orueta (Vicente Ferrer Fundazioa); Kultura zientifikoa eta berritzailea: Ainhoa Magrach (zientzialaria eta klima aldaketaren ikertzailea); Ondare kulturala, ukigarri eta ukiezina: Javier Campo (idazlea eta tokiko ondarearekin lotutako lanekin saiakera-egilea); Arkitektura eta espazio publikoa: Harino Panadera eraikina (ondare industrial eta arkitektonikoaren obra berezia); Aixe Gaztea (gazte saria): Martin Urrutia (aktore eta abeslaria, Operación Triunfo lehiaketako finalista), eta Ibilbide profesionala eta artistikoa: Peru Urresti (argazkilaritza eta egunero-ko bitzita sozial eta kulturalaren memoria).



Iñigo Pérez Abraguinek 2025eko Doctoralia Awards sarietako bat jaso du Bartzelonan

Iñigo Pérez Abraguinek, otorrinolaringologiako espezialista eta Getxoko bizilagunak, 2025eko Doctoralia Awards saria jaso zuen hilaren hasieran, Bartzelonan; zehazki, Estatuko otorrino baloratuenaren saria. Sari horiek osasun arloko profesionalak eta zentro medikoak saritu eta ospatzen dituzte, pazienteen bizitzan eta komunitate medikoan eragin positiboa izan baitute. “*Sari bakoitza bikaintasun klinikoari, giza hurbiltasunari eta Espainian osasuna hobetzeko konpromisoari egindako omenaldia da*”, adierazi dute Bilbon lan egiten duen zentrotik.



Aste Berdearen Marrazki eta Mugikortasun Astearen Argazki lehiaketaren sariak emanda

Udalak aurtengo Aste Berdearen Marrazki eta Europako Mugikortasunaren Astearen Argazki lehiaketaren sariak eman zituen aurreko astelehenean, Villamonteko Kultur Etxean egindako ekitaldian. Iñigo Urkitza Ingurumen Unitateko zinegotziak sarituak zoriondu ondoren, eskatu zuen “*Getxo mugikortasun jasangarrian eta ingurumenaren errespetuan erreferente izateko lanean jarraitzeko. Aldi berean, sari banaketarekin pertsonen, ikastetxe kolektiboaren eta erakundearen ahalegina, sormena eta inplikazioa aitortu nahi ditugu*”. Marrazki lehiaketaren sariak eskola material loteak izan dira. Lehen saria (300 euro baliokoa) Zubilleta Eskolako Edurne Aranedarentzat izan zen, bigarrena (200 euro) Geroa ikastolako Alex Martijarentzat eta hirugarrena (100 euro) Europa ikastetxeko Anastasiia Yemelichevarentzat. Bestalde, Argazki lehiaketaren saria Josu Ocarizentzat izan zen, hiriko bizikleta tolesgarri bat, Alicia Moraledak jaso zuena.

2025/26 GABONETARAKO KIROL CAMPUSAK

Antolatzailea	Programa	Adina	Egunak eta ordutegiak	Prezioa	Kontaktua
Getxo Gimnastika Kluba	Gimnasia erritmikoarekin loturiko jarduerak Faduran	6/15 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 2ra 9:00-14:00	84/160€	Emaila: club_ritmica_getxo@hotmail.com Tel.: 685 545 032
	Psikomotrizitatea eta umeentzako jolasak Faduran	3/5 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 2ra 9:30-13:30	84/60€	
Getxo Saski	Saskibaloia Faduran	4/14 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era 8:30-14:30	35/175€	Emaila: campusgetxosaski@gmail.com Tel.: 657 773 523
Getxo Atletismoa	Atletismoa Faduran	6/13 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era 9:00-13:30	60€ /astea	Emaila: eventos@cagetxo.com Tel.: 688 698 882
Romo FC eta Arenas Club	Futbola Gobelan	5/12 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 3ra 8:30-14:00	100/180€	Emaila: eventos@romofc.com Tel.: 657 268 606
Getxo Azkarrenak Iristaketa Kirol Kluba	Iristaketa linean eta multikirolak Gobelan	3/12 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era 8:30-14:30	35/164€	Emaila: campus@getxoazkarrenak.com Tel.: 662 940 436
Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkartea	Igeriketa, multikirolak eta tailerrak Faduran	4/12 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era 8:30-14:30	90/170€	Emaila: info@getxoiw.com Web: www.getxoiw.com
Getxo Xake Kluba	Xakea disfrutatzeko eta ikasteko Gobelan	6/14 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era 9:00-13:30	75/100€	Emaila: clubajedrezgetxo@gmail.com Tel.: 606 672 999
Bolue Getxo Futbol Eskola	Futbola Faduran	5/13 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 2ra 9:00-14:00	100/200€	Emaila: kanpusa@boluegetxoeskola.com Web: www.boluegetxoeskola.eus
Haszten Elkartea	Campus inklusiboa eta egokitua Gobelan	12/25 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era 9:00-14:00	25-30€ / eguna	Emaila: gorka.haszten@gmail.com Tel.: 747 404 358
Romo Eskubaloi Kluba	Eskubaloia Gobelan	8/15 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era 9:00-14:00	150€	Emaila: club.balonmano.romo@gmail.com Tel.: 669 163 245
Getxo Irristan Kirol Kluba	Patin-hockeya eta irristaketa-hastapena Faduran	4/12 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 2ra 8:30-14:30	70€	Emaila: klub@getxoirristan.com Tel.: 670 733 824 / 622 593 057
Getxoko Show Iristaketa Kluba	Iristaketa artistikoa eta ingelesa Andra Marin	4/16 urte	Abenduaren 22tik urtarrilaren 5era 8:30-13:30	25-30€/ eguna	Emaila: info@cpsshowgetxo.com Tel.: 615 501 624




Getxo STren aurkezpena Faduran, 21 talde eta 237 kiderekin

Fadurak Getxo ST saskibaloia taldearen aurkezpena hartu zuen joan den astean, azken denboraldietako ezbeharrak gainditu eta inoiz baino biziago dagoela erakutsi zuen kluba. Guztira 21 taldek osatzen dute, kategoria guztietako 237 jokalarirekin, eskola kirolatik hasi eta bi talde adierazgarriek liga hasiera ikusgarria sinatzen duten elite senioreraino. Harrobiko lanari eutsi zaio, eta, horren ondorioz, lurralde eta autonomia mailako talderik garrantzitsuenetako bat da. Talde guztiek eta talde tekniko ugariak klubaren zaleen eta senideen babesarekin izan zuten harmailetatik, baita Getxoko bizitza politikoaren ordezkariena eta Amaia Aguirre alkatearena ere, klubaren lana eta Getxo STak gure udalerrarentzat suposatzen duena nabarmendu baitzituen. Klub horrek, gainera, Vascons enpresa du babesle nagusi denboraldi honetan, eta proiektu berri horren aldeko apustua egin du. Carlos Sergio ere egon zen, kudeaketa batzordeko kideetako bat, une honetan kluba zuzentzen duena, zuzendaritza batzorde berri bat aterako den hauteskundearen zain.

Naroa Ruiz Monge, berriz ere munduko txapel-dun bere taldearekin

Naroa Ruiz Monge patinatzaile getxotarra (20 urte) munduko txapel-dun izendatu da Artistic Skating Cunit taldearekin, Txinan egin berri den txapelketan. Iristaketa artistikoko talde kataluniarrak ere titulu bera lortu zuen iaz Riminin (Italia). Gainera, bere estatuko eta nazioarteko curriculum apartari urrea gehitu zaio banakako *solo dance* modalitatean, hilaren erdialdean Matosinhosen (Portugal) egindako Europako Kopan.



Gogoratu bere ahizpa Izadi (16 urte) Espainiako txapel-dunorde izendatu zela udan, bi modalitate-tan (*dance* eta *librea* bakan-rik).

Udal talde politikoaren iritzia



ZER EKARRIKO DIGU HAPOK?



Batez ere Getxoko etorkizuna ordenatua izatearen eta jasangarritasun sozial, ingurumeneko eta ekonomiko ahalik eta gehien errespetatuko direla bermatzea suposatzen digu. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, hain zuzen ere, udalak, baina baita Getxoko bizilagunek ere, etorkizunen inolako irizpiderik gabeko hirigintza-hazkunderik ez edukitzeko

izango dugun tresna da. Aldizkari ofizialean argitaratu ondoren go legezko epea irekiko denetik aurrera Getxoko HAPO berme guztiak garatu ahal izango da, denontzat eta, batez ere, getxoitarren belaunaldi berrientzat oso garrantzitsuak diren aukerak planteatuz. Getxoko HAPO honi EZEZKO botoa eman ziotenek, bai EH Bilduk bai El-

karrekin Podemosek, zergatik azaldu beharko lukete.

Zergatik ez dioten ematen aldeko botoa udalerriko bi ingurune naturaletako bat zaintzeari eta, ondorioz, baietz esaten dioten Azkorri osoa txaletez betetzeko aukerari eusteari, edo aisialdirako berdegune naturalak pribatizatzeari. Hori 2 milioi metro karratu lurzoru urbanizaezin moduan sailkatzeari ezezeko botoa ematea da, eta Azkorri hormigoitzearekin aurrera egitea.

Zergatik bozkatzan duten HAPOk gutira ahalbidetuko dituen babes publikoko 3.000 etxebizitzetarik alokatzeko 850 etxebizitza publikoen aurka? Ez bozkatzan dutenek egiten dutena litzateke, esan dezagun argi eta garbi, etxebizitza publikorako metro karratu bat bera ere ateratzea eragozteko, HAPOren onarpenarekin posible izango dena.

Zergatik ezezeko botoa ematen dioten

hala nahi badute Getxoko gazteei bizitzaren eta lan egiten geratzeko aukera emateari, eurek aukeratutako bizitza-ereduari modu seguruan eta ekonomikoki eskuragarri erantzuteko etxebizitza mota eskuratuz.

Zergatik ematen dioten ezetza ekipamendu publiko berriei edo sustatzaile pribatuen konturako hiri-berrikuntzari, kontuan hartuta ezezeko boto hori emanda udalak hiri-berrikuntzan gastatu behar izango zuela, zerbitzu publikoak hobetzen eta garatzen inbertitu beharrean, orain egin ahal izango duen bezala.

Getxoko EAJ-PNVk baiezeko botoa eman dio Hiri Antolamenduko Plan Orokorriari, Getxori eta, beraz, getxoitarrei orainerako eta etorkizunerako aukerak irekitzen dizkiolako. Jasangarritasunaren berme argiak dituen oraina eta etorkizuna. Gure konpromisoa bete dugu.




UDALAK URTEKO EGIN BEHARREKO INAUSKETA-PLANA EZ BETETZEAK GETXOKO ZUHAITZEN EGOERA KALTETZEN ETA LARRITZEN DU

Azken hilabeteetan Getxoko hainbat auzotako bizilagunek ohartarazi dute lorezaintza-zerbitzuak okerrera egin duela, batez ere kale eta berdegune askotan **ez delako inausketarik egiten**. Egoera honek udalerriarren itxurari eta zuhaitzen mantentzeari eragiten dio. Indarrean dagoen kontratua **2026an amaitzen da** eta horren barruan aldizkako inausketei eta lau metro baino gutxiagoko zuhaitzetan urtero esku-hartzeari buruzko betebeharrak argiak jasotzen dira. Hala ere, lan horietako asko ez dira egin, **metatutako atzerapenak** gertatu dira eta **hiri-ingurunea nabarmen okertu da**. Egoera honen aurrean Udalak **txosten**

tekniko bat enkargatzea proposatzen dugu, zer jarduketa gauzatu diren eta egiteke zer geratzen den zehazteko, bai eta horri lotutako kostua zehazteko ere. Horri esker esku-hartze eraginkorra planifikatu ahal izango da eta berdeguneen mantentze egokia lehengoratu ahal izango da.

Halaber, enpresa esleipendunari egin gabeko inausketen zenbatekoa **erreklatmatzea** planteatzen dugu, eta baliabide horiek **premiatzeko zerbitzu batera** bideratzea, normaltasuna berrezartzeko. Helburua Getxoko guztiontzat espazio publiko zainduak eta seguruak mantenduko dituela bermatzea da.



ehbildu

MUXIKEBARRIKO ANBIGUEN LIZITAZIOA ABIATZEA PROPOSATUKO DUGU

Sei urte igaro dira Muxikebarri ireki zenetik, eta kontzertu aretoen ondoan kokatutako anbiguek —*tabernako barrak* edo *zerbitzu osagarrien gunek izan behar zuten espazioek*— erabilerarik gabe jarraitzen dute. Jatorriz ekitaldien jarduna osatzeko diseinatuta zeuden, baina espazioak itxita daude oraindik, eta Udal gobernuak ez du inolako kudeaketa-planik aurkeztu.

Egoera honek ondoko ondorioak ekarri ditu: kontzertuetan ohikoa bihurtu da kanpoko edariak eramatea, ez dago bertako zerbitzurik antolatuta eta espazio publiko bat alferrik galtzen ari da urteak

pasa ahala. Herritar askok adierazi dute ez dutela ulertzen zergatik mantentzen diren itxita, are gehiago kultur ekitaldi handiak daudenean.

Gai honen inguruan galdetu dugunean, udal gobernuak azaldu digu ez dutela lizitazioa martxan jarri kultur ekintzak lehenesten ari direlako. Baina guk argi dugu biak bateragarriak direla: kultur ekintzak antolatzea eta, aldi berean, ekitaldi horiek osatzen dituzten espazio publikoak martxan jartzea. Izan ere, gaur egungo egoerak ez du kultur jarduna indartzen; zerbitzu gabezia areagotzen du.

Horregatik, aurkeztuko dugun mozioaren helburua zuzena da: anbigu horien kudeaketarako lizitazioa abiatzea. Lizitaziorik gabe ez da espazioa aktibatze modurik, eta erabilerarik gabe jarraituko dute, ezertarako balio gabe. Espazio horiek martxan jartzea ez da gehigarri bat; Muxikebarriko kultur gunea bere osotasunez funtzionatzeko diseinatutako zerbitzuak dira, beharrezko baliabide guztiak eskaintzeko pentsatuak. Zerbitzu horiek martxan ez egoteak hutsune nabarmena sortzen du ekitaldien egunerokoan eta herritarrei eskaintzen zaien esperientzian.

Lizitazioak aukera emango du erabilera-irizpide ondo definitzeko: nola eta zer baldintzatan kudeatuko den; zein ordutegi eta erabilera izango diren; eta espazioak ekitaldien dinamikan nola txertatuko diren. Horrela soilik saihestuko da orain artekoa: urteetan itxita eta azalpenik gabe mantendu den gunea bat, herritarren mesederako erabili ordez.

EH Bildutik argi dugu: espazio publikoek erabilera izan behar dute, eta Muxikebarriko anbiguek martxan jartzea beharrezkoa da kultur ekitaldiak baldintza hobean garatzeko.



BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO IRMOA

Azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunean, berriro ere ahotsa altxatzen dugu gizarte gisa **indarkeria matxistari bere forma guztietan aurre egin behar diogula** gogoratzeko eta aldarrikatzeko. Bakarrik salaketa sozialarekin, prebentzioarekin eta zero tolerantziarekin egin ahal izango dugu aurrera. Indarkeria matxistek **emakume eta neskato gehiegiren bizitza zeharkatzen jarraitzen**

dute. Erakunde moduan dugun betebeharraren lehen isiltasuna zegoen tokian argia, baliabideak eta **laguntza** ematea da. Horregatik, PSE-EErentzat, errealitateari aurre egitea eta Getxon emakumeen segurtasuna bermatzea lehentasun politiko eta etikoa da oraindik. **Carmen Díaz gure bozeramaileak** kudeatzen duen Berdintasun Zerbitzutiak herritar guztien inplikazioa eskatzen duen kanpaina berria bultzatzen dugu. **A-25ean, arreta be-**

rezia jarri nahi dugu beste zaugarritasun-egoera batzuk bizi dituzten emakumeengan. Inor bakarrik ez sentitzea nahi dugu, eta askatasunerako urrats guztiak babes kolektiboarekin egitea. Getxoko Emakumeen Etxea du, GURARI, **sareak indartzeko**, zaintzak partekatze eta udalerriri seguru, berdintasunezko eta indarkeriarik gabekoa eraikitzen jarraitzeko **topagune, laguntza eta prestakuntzarako gunea.**



IZAPIDE GUTXIAGO GETXO KIROLAK

Getxo Kirolakuen kuotaren hobiarik automatikoki aplikatzea eta familiak paperetatik libratzea eskatzen dugu. Aurreko urteetako zifrek erakusten dute egungo sistema eskas geratzen dela eta onuradun potentzial asko kanpoan uzten dituela. Horrela gaur egun familia askori kuotaren murrizketa hori lortzea eragozten dieten trabak amaituko lirake.